

Santos Leunda Eizagirre

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1912-2008)*

Aurkibidea

Biografia



Zarautzen jaio zen, Iñurritzan, Etxetxiki baserrian (hiru edo laugarren gizaldia). 1940ko Apirilaren 20an ezkondu zen, 28 urte zituela.

Zintak

ZAR-007

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Xabier - Maiz, Belen - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2004-12-02
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZAR-128

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mitxelena Etxabe, Arantxa
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Mitxelena Etxabe, Arantxa

Pasarteak

1. Santosen jaiotetxea

- **Erref:** ZAR-007/002
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>1912an jaio zen Etxetxiki baserrian.</p>

2. Mutil-ardoak antolatzen zituen San Pelaioak

- **Erref:** ZAR-007/003
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:05:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

San Pelaioak nola ospatzen ziren. Udaletxeari baimena eskatu eta mutil-ardokoak ibiltzen ziren festak antolatzen. Auzokoek oilasko-batzea egiten zuten baserriz baserri.

Transkripzioa

- Hemen, pixkat, e, hasi zaite nahi bazu kontatzen hemen zure gaztetako girua, ze giro zeon hamen, ta festak eta nola iten zian, ta... holako...
- Festak, San Pelaiua, beste festaik ez zan hamen.
- Nola izaten zian San Pelaiuak?

- San Pelaiuak izaten zian, aurreko astian, aste erdiyan eo, juntatu eta beti komisiyua izaten zan aurrekua, eta mutil-zaharrena juten zan zeara, esto... ayuntamentura, baimena zeatzeko, festa zeatzeko. Ta geo, juntatzen zian batzutan [Polisan]. Hor baserri bat bazan [Polisen], ta han itxe itxurazkua eo, behintzat reuniyua iteko, ta han zeatu...

- Hoi ze, mutill-ardokuak izango zian pentsatzen det, ezta?

- Bai, mutill-ardokuak, bai.

- Hor mutill-arduan ba al zekazuen edadeikan sartzeko, eo... Toki batzutan esaten zuen hamalau urte o hamasei urte sartu, eo libre izaten zan?

- Hoi, hamen hamalau urte artekoik ez zan sartzen, baiña [...] libre beti, [...] behiñ 'e, zeaik, urtian ezepeziyoik behiñ 'e ez deu zeatu. Jeneralian zaharrena, mutil zaharren bat izaten zan, hirurogei urtetik aurrekuak eta. Guk hamen, zean, ta, ayuntamientoko zea...

- Harei permisua eta eskatu ta...

- Hori da. Ta geo, oain iten dan bezela iya, iten zan zeatu, bezperan juntatu, ta geo San Pelaiu bigarren goizian oillasko bildu, baserriz baserri hasi, ta geo [...] hasi, [...], Nekazabal, ta zea, zea, Aixiya, ta [...] San Pelaioko buelta hau.

- Ze iten zan, buelta bakarra o bi buelta uain bezala? Bi kuadrilletan, eo...

- Bakarra ibiltzen zan ordun. Mutillak 'e oaingo erdiya, baiño kaleko zeatzea erdiya, ta ordun hori barriyan bertakuak bakarrik zeatzen zian. Ta barriyo, zian hamen [...] danak 'e, hogeita hamar itxe ez zian izango, hoiek kontatuta 're.

3. Festen inguruko kontuak; lagunarteko bazkariak

- **Erref:** ZAR-007/005
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Bazkalostean Villa San Pelaiora joaten ziren, don Evaristoren etxera. Nondik nora ibiltzen ziren. Iñurritzara bueltatutakoan aureskua. Nortzuk egiten zuten aureskua. Bildutakoarekin hamarretakoa, bazkaria eta afaria egiten zituzten.</p>

4. Lehenagoko zarautzarrak, lurrari eta itsasoari lotuak

- **Erref:** ZAR-007/006
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Hamaika anai-arreba ziren. Zarautzen lehenago kale-baserri asko zegoen eta kalean bertan ere ganaduak ikus zitezkeen. Zarautzen ez zegoen komertzianterik, denak itsasoari eta soroari lotuak ziren.</p>

Transkripzioa

- Ordun, zu jaio, ordun, Etxetxiki baserriyan.
- Bai, ta nere aita 're bai, ta aitona 're bai.
- Ta zenbat anai-arreba ziñaten zuek jaio...
- Gu hamaika.
- Hamaika. Ta zu zenbagarrena?
- Ni, nitzan, laugarrena omen nitzan, nere aurrekoa hil omen zan, Mauricio. Anaia, Xaguanea ezkondu zana, Manuel. Hor, geo, Donostiyan bestia hil zan, Joxe. Ta Santos, ni hirugarrena.
- Ta nola gooratzen dituzu umetako garai hoiek? Hola, jaio, ta baserriyan jende asko izango ziñaten...
- Orduan hamen bakarrik ez, e, kalia 're dana basarriya zan orduan, e! Zarautzen nik ikusi ditut behiak, Estanix Makazaga, [...] ta, hoiek dana [...] ta, ikatza partitzen...
- Alaba: Kale Nagusiyan ta zea...
- Bai...
- Kale baserriyak ordun.
- Kale basarriyak. Gaiñez, ni junda nao mutil koskorra aitona laguntzen. Aitonak ordun larogei bat urte o izango zitun, ta behiakin umatzea. Nola daka zeak, Garronekuak nola daka denda? Horren albuhan uste det zala, este... alkortia, [...].
- Alaba: Karruaneko denda zaharragatikan ai da...
- Orduan...
- Alaba: Leheno Kale Nagusiya o, botika alde hortan...
- Zan [...] holakua, Garro. O, Garro esan badet, e, zea..., este..., alkortia. Eta hara, behiai atzetik launtzen, pentsa zazu. Zea, Iri..., Patxi Iriondok 'e bai, zea zun, behiak eukitzen zitun, zean, este, zer dao uaiñ han, botika ez, botikatikan, botika [...], beste aldia zer da? Kaja de ahorrosa, han albuhan behiak. Bai. Eta zea, han, este, Xalegineko albuhan [...] 'e behiak, Kukuluk 'e zea, este, Zigordia kalia. Kolonen 'e bai. Kolon taberna bat zan, zean, oain zein dao, zer dao gaiñea, berriya... Errekondoneko aurrian. Zarautzen negoziatiak danak zeak zian, kanpokuak. Zarautzen bertako semeik 'e ez zun izan, itsasua ta sorua. Zarautzen ez zan izango iya itxeikan, Asti aldian o hola, baiño zea, soruik ez zunikan. Han [...] sorua, ta geo udaberriyan itsasoa.

5. Zarauzko baporeak eta hauen inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-007/007
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

San pelaiotarren artean bapore bat zuten. Hiru bapore zeuden Zarautzen. Getarian uzten zituzten baporeak eta oinez oinutsik joaten ziren marinela. Makinista, Azpiazu, bertan gelditzen zen lotan.

Transkripzioa

- Ni neu ez nitzan ibili [...] anaiak itsasuan. Ta hamen San Pelaion baforeik bazan, zean, baseritarran artian.
- Bai, e?
- Ta, hoi izaten zan majuba, bakarrik izaten da hori otsaillian hasi ta San Juanak arte, antxuan pasaa. Geo baforiak 'e txiki xamarra. Hiru zian

Zarautzen: Kintana, urte askuan bizi izan zana. Haiek geo masiyan, hori agostuan, sardiña, haiek eta... Bestia Portugesa, haiek 'e, San Pelaiotarra zan erdiya. Hiru bafore.

- Nun eukitzen zuen bafore hori?

- Getaian.

- Getaian.

- Bai, hamenguak Getaian. Ta gaiñea zea, pentsa zazu, Zarautzik 'e, Oriyotik okerro ibiltzen zian itsaso haundiya zanian. Getaian laga eta oiñez juten zian maiñelak, hankahutsik, polaiñak ta, ra, zean hartu, taka-traka-ta, ta hurrengo goizian, euna argitzeako zeara jun behar, atzea. Ta San Pelaiokuak iten zuen, moilla onduan jarri bi triñeo zahar haundi, ta haiek zea, hamen eoten zian zeako hortan, oain, zelai honen bukaeran. Hor eukitzen zituen neguan 'e, eta geo, San Pelaiokuak, han, moillan, jatsi baforetikan zeara, triñeroa, eta itxea. Ta, makinista, Joxe Antonio Azpeitia, ezautuko ziñuen zuek?

- ... bai, bai...

- A, bai? Ez dakit aita ezautuko zenduen... Bai.

- (A) Harren aita ez? Joxe Antonio Azpeitian aita habek ezingo zuen ezautu.

- Ez.

- Zea, Zirkuluan eoten zan., hua, zea, Zirkuluan. Geo, zea, Zirkuluan zea bat zeon, soziedade bat, eta han [...] zan. Ta hua makinista. Ta hua lotan geatzen zan baforiakin, este, Getaian. Ta bestiak juten zian hurrengo goizian, karro haundiya, saria hamen, oain [...], Argiñano daon hortan zabaltzen zian sariak haiek. Zeakuak, Kintanak berriz, moillan, eo munuan. Ta hola. Ta goizian lautan jaiki, nere anaia 're askotan, ta osaba ta 're bai. Karrua hartu sariakin, ta Getaira. Ta zeak, makinistak, orduan zea, egurrakin ta altza behar zea, presiyua baforiai. Eta hark hua pronto, eoten zian. Ta oiñez jun behar izaten zan, San Pelaiotikan Getaira. Ta atzea illuntzeako itxea. Antxua nahikua jaten gendun, baiña diruik ez zeon, ez zan, ez zan irabazten orduan.

6. Kale-baserrietako jendearen bizimodua lurrari eta itsasoari lotua

- **Erref:** ZAR-007/009
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baratz asko zegoen San Pelaion. Ze baserri eta etxe zeuden. Baserrietako jendea sorotik eta itsasotik bizi zen.

Transkripzioa

- Bai, eta gaiñea hemendikan ya herri aldea dana baatzak, eta...

- Dana baatzak, ez zeon... Eta aleik 'e ez zan. Hamen, aurreko zea hau, honek alboko hori, hori banitun... Horko balkoitako harri earrak neuk jaso nitun, hemezortzi urte izango nitun, hamen San Pelaioko etxia in zanian. Monteruana 're basarriya zan.

- (A) Monteruanekua da zea, Rosario, hor, lehenbiziko elizan onduan daon zea hori...

- Hori basarriya zan, bai. Eta, San Pelaio izanda... Geo hurrengo,

telefonikatik honea bat, zeakua, Agirrekuak in zuen etxia, eta gaiñuntzian, Arrutineko taillerra ta zian, baiño hoiek 'e, hoiek danak soruak zian. Hoiek zian Etxe Beltzekuak eta Don Evaristonak eta... hoixe dana, han ixkiña 're bai. Hamen itxura antzeko baserriya Etxe Beltz dia, ta Etxaniztarrak, beste gaiñuntzekuak danak bi behi, eta itsasoa.

7. Kadi lanak golfeko zelaian

- **Erref:** ZAR-007/010
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Golfeko zelaia. Teniseko zelaia. Espainiako txapelketak ere jokatzen ziren eta atzerritar asko etortzen zen. Kadi lanean ibiltzen ziren golfeko zelaian eta sei errial irabazten zituzten eguneko, etxe koentzat ogia erosteko lain.</p>

Transkripzioa

- Eta, gu, nik sei urteako, ni 're golea... Uste diat, nik lau urte nitunen o hola iñ ote zan gola. Hori da, erdiya ayuntamientuana dao. Eta txaleta ta berriz, o, txaletatikan zeara, [...] zea arte...
- (A) Kanal aldea...
- Herriyana da, mugak hantxe dabe.
- Oseake, garai hartan asko ibiltzen ziñaten, baserriyaz aparte, ba, arrantzan tenporada bat eta gero golian...
- Ba, golian gu hiru anaiak 'e bai. Akordartzen naiz tenisan lehenbizikoz hasi nitzanian pilota biltzen, bakizu nola ibiltzen giñan pelotak botatzen, ta. Sei errial euneko, e, ta goizian dana markatu, letxerakin markak, ta [...]. Zian sei tenis, ta Campeonato de España jokatu zian ordun zean 'e, hamen 'e, Campeonato de Españak. Zeako gerra, este, Afrikako gerra zanian, hamen etortzen zian orduan frantsesa, inglesa, italianua... Hamen, ordun jaiki zan, gola 're ordun iyo zan. Sei errial, ta bi anaiak golea, o sea, kadi ibiltzen zian. Geo, bai, ni 're zazpi urte ezkeo, gehio irabazten zan, ta, kadi, bakizu, boltsakin. Uain bakoitza bere zeakin ibiltzen dia, karruakin. Ta, orduan aristrokaziko jendia bakarrik. Ta, sei errial. Ta, zea, esan zien bidian anaiak, "ez esan, e, galdetuko dik amak, eta, ze diruik ibili al haiz, eta ezetz esan". Ta, orduan nik nola esan [...], mahaian gaiñian sei errial, ta jesus, amak zea, famili danantzako euneko ogiya, sei errialekin, pentsa zazu ta, hamabi lagun o eongo giñan, sei errial... Bueno, hortako goizian talua jaten gendun, talo ta esnia, ta afaitan 'e bai. Eguerdiyan bakarrik ogiya, bai.

8. Lorazain lanak Alberditarren etxean.

- **Erref:** ZAR-007/011
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:27:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Komunio handia 10 urterekin egin zuen eta horren ondoren lanean hasi zen. Azkoitiko Alberdi familia aberatsarentzat lan egin zuen hasieran. Baratzea eta fruta-arbolak zaintzen zituen eta 10 erreal kobratzen zituen eguneko. Familia honen inguruko kontuak.</p>

9. Eskolako kontuak; erdararekin izaten zituen arazoak

- **Erref:** ZAR-007/012
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:27:08. **Bukatu:** 00:30:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>7 urterekin hasi zen eskolan miserikordian eta 9 urterekin herriko eskolara. Irakasleak erdaldunak ziren eta berak erdaraz ez zekienez, amak laguntzen zion eskolako kontuetan. Gau-eskoletan ibili zen. San Pelaion noiz jarri zuten eskola.Oinutsik ibiltzen zen sarritan.</p>

10. Noiz egin zuten San Pelaioko eskola

- **Erref:** ZAR-007/013
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:30:21. **Bukatu:** 00:34:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Noiz egin zuten San Pelaioko eskola. Herriko jendeak egin zuen eskola harriak behiekin ekarrita. Haurrak kabitu ezinda ibiltzen ziren eta handitu egin zuten.Ondo prestatuta zegoen eskola, kalefakzio eta guzti. Imanol Murua alkateak asko lagundu zien bera ere San pelaiotarra zen eta.</p>

Transkripzioa

- Ta, noiz jarri zian hemen Iñurritzan eskolak?
- Ba, izango nitun nik, behintzat, [...], orduan dan-dana in zan. Basarritarrak harriya zea, harrobiya bazan, geneukan zean, kostan bukaeran, eta handik harriya ekarri baserrita, Miako hortatik, eta iriya zakena dana, harri ekarri hor. [...], Txindurritakok, Soazukok, eta San Pelaioko zea, hamen ez zan iriikan. Behiak bakarrik izaten zian hamen: bi behi batek, bestiak hiru behi, Etxe Beltzen ta lau o bost hoiiek, baiña beste dana... Eta hamenguak piontzan. Ta hala in zan. Ta eskola bat ein zan, planta batekua. Ta seituan zea, hirurogei ta gehio, ta ezin. [...] ta geo, bestia in beharra zeola, ta geo herriyak in zun goikua. Ta horreatikan dakau

guk zea, jubilatuan zea...

- (A) Soziedadia.

- Soziedadia. Zeak eskola berriyakin hasi zianian, [...] in zituenian, hori bota in behar zuela ta, ez, San Pelaiokua zala bat. Ta Imanol zeon ordun, ta Imanolek hua 're San Pelaiotarra zala esaten zun, ta ein giñun zaharrantzako zea. Hortako, zeak, [...] zun ayuntamientuak zeak, bailletak, o, zea, dantzaiña, zea hori izatea...

- Dantzaiak, bai. Nik ezautzen ditut hor dantzaiak...

- Ez, ez, ez...

- (A) Baleta, baleta.

- Baleta. Bueno, eta Don [...] etorri ta, nada, [...] eta, este, kontratista zein zan hua? Aiakua, hil zan, uaindik uaiña hil zan.

- (A) Iburguren.

- E?

- (A) Iburguren.

- Iburguren, bai. Hua, ta "ze ai zeate?" esan niyon, ta, "bai, hogei milla duro prestatu dizkiye zeak", eman zizkiyon ikastolak handik pasa jartzeatikan. Ta jarri zun entrada lehen hiru zeakin, eskolak bihiak jostatzeko ebiya zanian ta. Ta, geo zitun bi piso: bat mútillantzako ta bestia néskantzako. Eta hau zeantzako dek ederra zeak, han, kalia jarriya zio, oain in die, ez.... kalekua baiño leheno konsegitu nun hori. Nik kalia juntako eon nitzan, hango zaharrantzako zea iteako, in baiño leheno, hango juntakuakin. Eta hala, eskatu in giñun eta zeak baietz. Esto... ez, ez, [...] pareteko zeakin, esto, kalifaziyo ta argiya ta dana. Bastante neretzat, bertako baserritarrak juteko primerakua. Ta hala zea konsegitu gendun, halaxe konsegitu gendun. Ta geo, eskola zeon artian, baiña Isidora zeon, Isidora, Ziotza, Aristi. Ta, "ederki pentsatu dezue, Santos, ta gu laiste jun behar deu ta bestia iten badue hara". Ta geo guretzako geatu zan. Ta lehenbiziko pisua hartu zuan zeak, iten zuen hor ba, buziñakin ta artia.

- (A) Zuek ezautuko zenduen, zea?

- Bai, bai.

- Holaxe zeatu zian hoiek, holaxe konsegitu gendun. Orduan zeak asko laundu zigun, e, San Pelaiotarra ta Imanol [...].

- (A) Imanol ordun alkate zan ta, bai.

- Geo, Gran Hotelakuak laga zuen, ta han, bakizu, mahaia ta sillak eta zeak eta... Haiek 'e konsegitu giñun, zeai, Gran Hotelakuai ta, ba, zea, Manolo Aranguren eo hemen zeakin, furgonetakin ekarri, ta, halaxe [...] in giñun.

11. Gaztetako lehenengo lanpostuak

- **Erref:** ZAR-007/014
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:34:26. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Anai zaharrenak okin lanbidea hautatu zuen. Lehen tailer gutxi zegoen Zarautzen. Beste anaia tailer baten hasi zen lanean. Bera batarekin eta bestearekin ibiltzen zen lanean eta udan golf-ean lan egiten zuen.</p>

12. Zaldi-karroak, Zarautzik Donostiara joateko garraioa

- **Erref:** ZAR-007/015
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:38:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Markesak eta kondeak etortzen ziren udan. Zaldiekin tiratutako karroa erabiltzen zuten Zarautzik Donostiara joateko. Zaldiak nork erabiltzen zituen garraiorako. Lehenbiziko kotxea nork ekarri zuen Zarautzera.</p>

Transkripzioa

- Negutikan udaa ziharo kanbiatuko zan anbertia, ezta?
- Hoixe!
- Kanpoko beraneantiakin, ta...
- Bai, udaa... udazkenen eoten zian hamen Marqués de Narros y Conde Real. Ta Duque de la Vega zea hoiek, bixki hoiek eoten zian zean, gabonak arte iya. Automobilla 're beayena zan hamen lehenbiziko... Ni zaldiya ta karruak, geo zaldiya ta kotxiakin, Zarautzik Donostira ezautu nun. Ez zan automobillik Zarautzen. Txertubik lehenbiziko ta geo zeakuak, Marqués de Narros y Conde Real, Marcelino ta Javier zian hangauk. Mutil zaharrak biyak. Geo...
- Txertubi hua kamionakin ta ez al zan ibiltzen?
- Zein?
- Txertubi kamionakin ta ez al zan ibiltzen?
- Bai, geo... Geo kamiona lehenbiziko ekarri zun zeak, Salbidek zeara, furgoneta, bueno, zea, remolkeko txiki bat. Beste dana leheno zea, iriyakin: [...], Telleikuak iriyakin, Manuel Mari, danak iriyakin, zean [...]. Eta geo, zeak, este... Goletikan 'e zea, zea, Otamendin 'e zaldiyak zaben. Ta San Pelaion bertan zian Telleikua, hamen, estankera honen aita, aita ez, aitona. Ta, hiru San Pelaiokuak zian, zeak, kotxeruak, Zarautzik Donostira. Zaldi bakarrekua izaten zan, zea, kotxe [...], partikular jun nahi zunantzat. Ta bestelakua bi zaldiekin [...], lau launekua o. Hoixe zan Zarautzik Donostira. Hori zan. Lehenbiziko...
- Zarautzik Donostira 're uain bezain sarri ez ziñaten ibiliko garai hartan...

13. Bere aita izan zen trenbideko lehenengo goarda

- **Erref:** ZAR-007/016
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:41:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

<p>Trenaren inguruko kontuak; brigadak. Brigada bakoitzean 6-7 lagun egoten ziren: kaltzadorea, kapataza.. Bere aita izan zen lehenengo guarda trenean eta goizeko lauretan jaiki behar izaten zen. Ez zuten ez argirik eta ez

erlojurik eta aitonak despertadore bat ekarri zion. Berak ere lan horretan bukatu zuen.</p>

14. Trenbideko langileen lan-baldintzak

- **Erref:** ZAR-007/017
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:41:53. **Bukatu:** 00:43:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Goizeko bostetako Aiako eta Orioko kanpaiak entzuten zituen. Ze eginkizun izaten zituen. Orduan ez zegoen segururik, baina beraiek medikua eta jorjala izaten zituzten gaixotuz gero.</p>

15. Herriko medikuak

- **Erref:** ZAR-007/018
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:43:24. **Bukatu:** 00:44:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Zarauzko medikuak: don Leandro, don Pako... Euskaldunak ziren.</p>

16. Evaristo sasimedikuaren ikendu eta erremedioak

- **Erref:** ZAR-007/020
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:46:35. **Bukatu:** 00:48:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak

Laburpena:

Behin behia erosi ferian eta gorputzean tanto batzuk atera zitzaizkion. Sasimedikuak eman zion erremedioa kontatzen du. Evaristo sasimedikuaren ukendu eta erremedioak.

17. Medikua eta sasimedikuaren arteko kontuak

- **Erref:** ZAR-007/022
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:52:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Askotan don Evaristo medikuarengana joaten zen jendea konfusioz,

Evaristo sasimedikuarengana joan beharrean. Medikua kexatu egiten zen ez zutelako ondo tratatzen. Xantosen aitona kortan baratxuri-buruak izaten zituen, ebakiren bat egiten zenerako.</p>

18. Gaztetako entretenimenduak

- **Erref:** ZAR-007/023
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:52:28. **Bukatu:** 00:55:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan erre kara joaten ziren jolasera. Zabortegia zuten inguruan eta eskolatik irtendakoan [primeratxoak] eta [kalakalak] biltzen zituzten bertan. Kanikak buztinarekin egiten zituzten. Futbolearen ere egiten zuten, mutil guztien artean baloia erositakoak. Pilotan egiteko frontoirik ez zuten.

19. Zarauzko okindegi eta dendak

- **Erref:** ZAR-007/025
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:56:30. **Bukatu:** 00:58:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Ze janari-denda eta okindegi zeuden Zarautzen. Dendari eta tabernari gehienak inguruko herrietakoak ziren. Sagardotegiak.

20. Bertsolaritza eta sagardotegiak

- **Erref:** ZAR-007/026
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:58:29. **Bukatu:** 00:59:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Aniak eta aitona ere bazuten bertsotarako zaletasuna. Anaia 14 urterekin moz kortuta etorri zen etxera sagardotegitik.</p>

21. Txakolindegietako ohiturak

- **Erref:** ZAR-007/027
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:59:41. **Bukatu:** 01:01:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Txakolina ez zen botiletan sartzen, txotxetik edaten zen. Txakolindegia. Meza ostean bi basoerdi edan eta panpota janda gustura gelditzen ziren.

22. Sanpelaiotarren izakera eta kaletarrendik zuten aldea

- **Erref:** ZAR-007/032
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:07:49. **Bukatu:** 01:09:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Kalekoekin zituzten ezberdintasunak. Futbolean San Pelaiokoek irabazten zuten eta baita bizikletan ere. Futbol taldeak: Moillarri eta [Demarri]. Kalekoek basati gisa ikusten zituzten sanpelaiotarrak.

23. Baporeak nola itsasoratzen zituzten.

- **Erref:** ZAR-007/033
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:09:47. **Bukatu:** 01:10:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Bapore berriak nola botatzen zituzten uretara.

24. Golf-eko kadi lanak

- **Erref:** ZAR-007/034
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:10:59. **Bukatu:** 01:12:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Bera ez zen apustuzalea. Golf-ean bederatzi urte egin zituen. Propina ematen zieten kadi lanetan ibiltzen zirenei. Golf-eko lexikoa dena ingelesez da. Berak ikusitako apustuak.</p>

25. Kirolerako zaletasuna: korrikalariak, txirrindulariak eta futbol taldeak

- **Erref:** ZAR-007/035
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:12:47. **Bukatu:** 01:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Korrika egiteko zaletasun handia zegoen orduan eta baita bizikletan ibiltzeko ere. Moilarri futbol taldeaz gain beste zenbait ere baziren herrian.</p>

26. Gerra garaian bi arreba galdu zituen

- **Erref:** ZAR-007/037
- **Iraupena:** 0:04:29. **Hasi:** 01:14:32. **Bukatu:** 01:19:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gerra hasiera nola gogoratzen duen. Burgosen egon zen eta ondoren Iruñean. Han zegoela egunkarian irakurri zuen bere arreba hil zela. Egin ahalak egin zituen Zarautzera joateko, baina ez zioten utzi. Handik gutxira, Teruelen zegoela, beste arreba bat hil zitzaion.</p>

27. Villapadiernako markesentzat lan egiten zuten neskameen egoera

- **Erref:** ZAR-007/038
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:19:01. **Bukatu:** 01:21:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Beste bi arreba, Kuliskaneko alabarekin batera, Vista Alegreko markesarentzat neskame lanetan ibili ziren eta desagertuta egon ziren denbora luzean. Nagusiak Madrilen hil zituzten. Bera Teruelen zauritu zuten. Ondoren Bilbora joan ziren.

28. 'Kaperotxipi' margolariaren inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-007/039
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 01:21:57. **Bukatu:** 01:25:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Kaperotxipi margolariaren inguruko kontuak. El Pueblo Vasco egunkarian idazten zuen. Elgetan bizi zen, baina ihes

egin behar izan zuen, lehenbizi Frantziara eta ondoren Argentinara joan zen. 40 urte egin zituen kanpoan.</p>

29. Ezkontza eta bikoteen arteko kontuak.

- **Erref:** ZAR-007/040
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 01:25:16. **Bukatu:** 01:29:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

1940an bi anaiak batera ezkondu ziren. Don Benito apaizaren inguruko kontuak. Jainkoari zuka hitz egiten zitzaiola eta berak ez zuela merezi berorika hitz egitea esaten zuen. Ezkontzaren inguruko kontuak. Lehenagoko bikoteak; emakumeak asko sufritu arren, ez ziren banatzen.

30. Umetan dirua lortzeko moduak

- **Erref:** ZAR-128/002
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:00:38. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Gazteak zirenean, eskolara 7 urtera arte joaten ziren. Miserikordian ikasi zuen. Kantuan joaten ziren diru eske. Aitonak erakutsi zien kanta batzuk abesten. Umetan golf-era joaten hasi zen lanera, txanpon batzuk irabazteko.</p>

Transkripzioa

- Zuek gaztiak ziñatenian, nola pasatzen zenuen denboa, ze iten zenuen?
- Gu gaztiak giñanian, eskola zazpi urte arte, hantxe Miseikordiyen ibilli nintzan; Santa Ana edo esaten zaiona, guk Miseikordiya esaten giñun. Egualdi txarra zanian, abarketak, zean, bi muturretan lotu, [...] gerrin hartu, ta eskola jundakuan jantzi. Hori egi haundiya da.
- Eta dirua ateratzeko ta Santa esketan ta ibiltzen al ziñaten?
- Askotan ibili izan giñan han'e dirua ateratzeko. Ta egiya zan aitona gendun bastante moldatzen zana; ta akordatzen naiz, ez nitun zazpi urte izango, artian bosten bat urte, eta "aitona, aitona", ta "eakutsi idazu kantatzen Etxanizenea juteko", ta alboko itxia, Etxe Txikitik hurrengo itxia Etxaniz, "hoi're ba al deu, ba?" Ta "Eakutsiko yat, ba". Ta han zauden matrimoniyo zarrak, larogeiren urte, tankera hortakuak, ta aitona eo aita zaharra zan, Erramun izena zun, ta etxeoandria Madalen. Ta hauxe esan zion:

Kariñosua bisitatzen da, bai, egunian bi aldiz

Etxe hontako nagusi jauna degu Erramun Etxaniz.

Geo etxeoandriai hurrengua ber ta:

Erramun degu nagusiya ta etxeoandria Madalen
Orain gugana etorri bedi limosnarekin lenbailen.

Hoixe zian lehenbiziko holaxe. Geo, gaiñuntzian, urten bat eo besten ibiliko nintzan. Behin, egiya esan, zortzi bat urte giñula golea hasi giñan, ta golea hor ibiltzen giñan aristokraziko jendiakin, hantxe. Ordun ogiya jango bazan, dirua ber; ta hala, jun ta lehenbiziko sei errial irabazi nitun. Ondo gogoatzen naiz itxea etorri nintzanian, beste anayak'e bai, ta "ez esan, ez esan amai e? Ez esan amai ibili haizenikan". Ta ezin ni eon, ni jun, ta da! Mahaien gaiñian sei errial, ta "Jesus! Bejondeikela! Eguneko ogiya danontzako irabaziya diu, eo eguneko ogiyen ordaintzeko gaiña".

31. Gaztetan, udan futbolean

- **Erref:** ZAR-128/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Hazi zirenean, futbolean jokatzen zuten udan. Komunioa egindakoan, aitonari laguntzen gelditu zen. Maila handiko jendea ibiltzen zen futbolean.

Transkripzioa

- Ta gero ya haundiyo ziñatenian, nola pasatzen zenuen denboa?
- Golian, ba, bueno, hori uda parten izaten zan e? Neguan beatzi urte, orduan komuniyua hamarrekin egin nun, ta geo aitonai launtzen, bestiak itsasoa ta hasi zian ta, aitonai launtzen izaten nitzan. Ta gaiñuntzian, uda aillatzen zanian, golea hiru hillabete izaten zian. Orduan, hantxe pixkat argitu giñan. Gaiñuntzian, "sí" ta "no" zer zan'e ez giñakiun. Ta hoixe. Golian sartzen zan orduan, gaixki ikasten zala, ta ez, ta horrela. Golian, bai, jende zea haundikua, kategori haundikua ta, hoi danak bai. Ta been bailiak ta iten zuen txaletian, baiña gaiñuntzian ez, beti nik aristokraziya dana jende ondo jantzitakua da, ta gaurtik oso kanbiatuta dao.

32. Taxiak eta jende inportantea

- **Erref:** ZAR-128/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:03. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Taxilari-lanak egiteko, zaldia eta gurdia izaten ziren garraiobidea. Zarautzen nork zuen autoa eta zer jende ezagun etortzen zen aipatzen du.

Transkripzioa

- Automobillik'e... bai, bakarren bat. Ezautu nun nik Zauzko herritikan golea taxisa bezela, zaldia ta karrua, edo kotxia. Otamendinen zea, Otamendinen hoik'e zea zian, taxisan tokiyan zaldia ta kotxia ezautu nitun. Ta Donostira're bai! Donostira're zaldi bakarrekua "sixto" esaten ziyona. Ta bestiak bi zaldi eo laukuakin'e bai, zea, kotxe haundiya. Geo automobillak aristokraziyak Granadanekuak ekartzen zituen bi, ta besten bat eo beste. Beste automobillik ez zan.

- Ta ze jende etortzen zan leno honea?

- Jende haundiya. Honea etortzen zian ministruak. Nik ezautu nitun hamen lehendabiziko ministruak "Marqués de Cortina, esto, ministro de economía" uste det. Benjumea: hoyek oain Txapelaunditako mojak nola? Hor eoten zan. Eta bestia ministrua "Conde Gozander", hori Domeken koiñaua zan.

33. Erregea Zarautzen

- **Erref:** ZAR-128/007
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:10:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Erregearen gaineko kontuak kontatzen ditu. Hura Zarautzera etortzen zenean zer egin behar izaten zuten, zertan ibiltzen zen Erregearen familia Zarautzen, non egoten ziren...

Transkripzioa

- Juan Karlos eo "Conde de Barcelonan" anaiakin'e ibilia naiz ni. Hua zan Alfonso trezen lenbiziko, zea, seme zaharrena, mutua zan: mutil earra zan, altua, ta earra mutilla. Ta zea zatorrela, erregian semia, ta txapela're (txapelakin ibiltzen gendun ohitura), ta txapela're kenduta hua zatorrenian ta, nola ibiltzen giñan. Hor "Conde Barcelonak" honek nee edadia izango du oker haundirik gabe, baleike urte bat gehio eo gaztexeo izan. Bere alabak'e, bai, Alfonso trezen alabak'e etortzen zian: oso emakume bikaiñak zian, haiek tenisian jokatzen zuten, hoixe. Jose Antonio Primo de Riverakin'e bai ibiltzen giñan, hori estudiantia eo, gu baiño zartxio zan, ta asko gustatzen zitzaion hemen euskaldunekin ibiltzia hemen. Ta hola golian ibiltzen giñan. Bere anaia bizitzen zan oain "Casa Azul" nola dao? Beno, "Casa Azulen" aurrian zein da kozinero...

- Argiñano?

- Hoi da, Argiñano. Ta hor bizitzen zan, zean, este, Jose Antonion anaya ta bere emaztia. Guk torretxe atzian patata iten genun. Patata zailla gendukan hor Mendilautan. Ta hala, bakar-bakarrikan nintzan beyekin junda zakarra biltzen patata ateata, ta etorri zitzaizkiten, ta iaber utziko al niyoen, zeakin, akuluakin ibiltzen, ta bayetz, pozik. Ta hayek aurrian jarri, ta ni atzian nagiaikin, hahor. Arrazoin batzuk ateako zituen, ez zaten aillatu baiña. Holaxe, guretzat jende ona izan zan hua: beti, esaten dizut, pezta bat eo bi ematen zizkiguen, ta guk harren poza izaten gendun.

34. Zarauzko lehengo baserriak

- **Erref:** ZAR-128/008
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:10:21. **Bukatu:** 00:11:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Zarauzko orduko bizimodua: itsasoa eta baserria. Orduko baserrien izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gaiñuntzian, hamengo bizimodua, lehen esan dizuten bezela, itsasua ta zea zan, basarriya. Basarriyan izenak esango nituzke orduko Iñurritzakuak: Izpillak bi; Ploesak; Pikatza; Asierreniak; eta Benta eo deitzen giñun hori, Txotxapaindu zun izena horrek, gaur sosidadia daon zea honek, Txotxapaindu; geo Landania; Alparketeronia; Hondartxak; Indineo zaharreena (hori autopista eo kamiyo berriya in zanian bota zan); ta Zubiaurre berri; Zubiaurre zaharra; Etxebeltzia; Amillui; Etxaniz; Etxe Txiki; ta gue atzian, zean, Zauztiñania zian (prantzesa esanda ezautzen due batzuk); eta Monterua bizi zan itxia (hori're bajua); ta Pedro Lakumia; eta Floresak. Hogeita bost kontatu izan nitun. Barriyo guziya hori zan.

35. Zarauzko alkateak

- **Erref:** ZAR-128/009
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Bera gaztea zenetik, Zarautzen zer alkate egon izan diren aipatzen du.

Transkripzioa

- Eta akordatzen al zea zu gaztia ziñanian zein zan alkatiya?
- Ni Luxia zeoze aitzea badaukat. Luxia. Eta geo ondorenen, handik hurrungo alkatiak, esango dizut ba... Bernardino Izeta're ezautu nun; don Kandido're bai; Digurtxio Legorburu're bai; Urritza're bai, hoi're geo gerra denbora haitan, Urritza; ta harren gerra zan denboan harrek alde in zulako bitartekua, Aginaga're bai; ta besten bat'e hor tarte hortan leno, zea, Felix Amestin ta aita (oain izena ez dakit, Txomin Txikinekua eo deitzen ziyoena). Hoik danak uste det ezautu ditutela alkatiak. Ta geoztik, berriz, Imanol da.

36. Herritar bati buruzko anekdota

- **Erref:** ZAR-128/011
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:16:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Aitonak ipuinak kontatzen zizkion. Zarauzko pertsona batzuen ezizenak aipatzen ditu. Haietako bati buruzko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Ba, ohitura haundiya nun nik, zea, zelebrekeian ta aitona hola "Aitona, ipurik eta ba al dakizu?", eta "Bai". Ta hola, ta halaxen buruan hartuta asko dauzkat. Bueno, Epurdibikonekuak'e bazian Zautzen, Zautz mote haundikuak izan dia: Ipurdibiko, Txarribuztan, Xagua, Otzarretak, Xaraxolak... Danak basarri izenak, nunbait, dana Ayatik eta Aizarnazabaldik, inguru hontatik juntatutakua Zautzen. Errekondo habek danak Aiarrak dia, ba, izatez. Ta hala, Epurdibikoneko hau oso xelebria izan behar zun, ta hala, ardozale pixkat'e bai. Eta leno ohitura haundiya zan gurasuak hiltzian, etxeko maiorezkuei eo etxia animan eunian ta, zeak, responsuak ateatzeko danak zerbait senide guziyak. Ta nola zan etxeko maiorezkua Ipurdibikoneko hori, eman dizkiyoe batek eta bestiak: guztiya errial bana izango zan, baiña igual da, bi pezta eo osatu bazitun'e. Ta ardua gustatzen, ta ze in du? Ba, ardotan gastatu diru hori erresponsuan hori. Eta hala, parrokira eo eliz nagusira emateko palta ta kezka ematen. Baiña, aidanez, bere zeakin iten zun responsuak eo errezuak beak in. Hala, kezka ematen, ta jun da konfesatzea fraile batena, ta esan diyo kezkan zeola. Ta zer zun, ta hola, ta hola, bere senidiak responsuak ateatzeko dirua eman ziyoela, ta oso urri ibiltzen zala hortatik, eta ein zula haiek gastatu, ta ardo pixkat, eo bere arrantxua iten, baiña errezatu in zitula, ta iaber nola in zun, ta patrikan paterna hartu, eta paternosterra errezatzean beste aldea pasa. Ta danak errezatu al zituan, ta "Bai, danak", oso ondo gaiñez, zea, deboziyo handiyakin... Ta, ba, ez zakala zertan bat'e kezkaik euki berrikan, alegiya, hark errezatu eo frailik errezatu, berdin baliyo zula, ta lasai juteko. Ta hortxe trunkildu gizona.

37. Beste herritar bati buruzko anekdota

- **Erref:** ZAR-128/012
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:16:37. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Herriko beste batek apaizarekin izandako anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

Beste bat'e bazan holaxe aitortzea jun zana kontratista eo hola, gizon zea zamar bat, sueltua eo herri txiki hauetan gutxi izaten zian holakuak, eta

horrela. Hua're urtian behin juten zan hoietakua. Eta hala, San Jose inguratu zanian, han dijua. Eta erretore jauna han omen zabillen zimitaiuan bueltaka. Ta hala: "A! Hamen haiz horreatikan! Oaintxe zai nitxion laiste azaldu ber dekela ta", "Bai, baiña belaxe bialduko nauk aurten, belaxe!", "Belaxe?", "Bai, hiru bakarrik dakarkit. Hiru bakarrik!", "Beno, ala, guazen ba". Ta hala juten dia konfesonayoa, ta "Beno, beste gaiñuntzekua hiru baldin badakik, aitatu gabe esan zak, ba, bat". Eta, pra: "Eunero mozkortu iten naiz, ta itxea juten naiz". "Jesus, hi haizen gizon moua, eta eunero mozkortuta?". Eman diyo eundoko artua: "Gaixki hartu, gaixki hartu. Denoi gustatzen zaigu gutxiyo geyo, baiña eunero hori gauza latza dek". Hala, eman diyo, ba, bere zea, ta sayatuko zala pixkat eo, baiña... "Ta bigarrena esan berko dek, ba, bigarren hori're"; ta "Ba, bigarrena, handik eta hemendik hau, ta hamar kostatzen dana, hamabi". Ta "Jesus!", berriz'e ekin diyo hori ez dala behiñ'e ondo, hamar baliyo ta hogei kobratu, ta hola. Ta gaizki hartu du, oso gaizki hartu du: "Jo, ba, gaizki hartzen al dek...?", "Bai, ta ez zakit absolutiyua emango diyaten e? Honezkeo esan zak, ba, hirugarrena're", ta "Hirugarrena're esan berko diyot, ba: etxetik kanpo're ibili iten naiz. Emaztia're bat utzita". Eta "Jesus! Oaindikako txarrena hori, berriz. Jesus!" Ez diyola emango absolutiyoikan, ta "Jesus!", "Absolutiyo gabe bialduko nau?", ta "Bai, hori ezin leike... hiru ditukela!". "Sayatuko nitzake, ba, bat lagatzen, ta danak batian haundiyoik ez zeok; baiña bat lagatzen", ta "Bueno, hitza ematen al diak?", "Bai, bai"; ta "Beno, zein kenduko diyau?", ta "Beorrek nahi duna, beorrek nahi duna", "Bueno, nik nahi detena ordun?", ta "Bai", ta "Ba, laga diyok, ba, zeai, zeak hamar baliyo duna hogei kentzia, zea, kobratze horri laga diyok. Baiña zintzo in hoi geo e?", "Bai, bai. Ordun lasai jun naike?", ta "Bai". Eman diyo bere absolutiyo hori, ta hala, handik zortzi egun baiño leheno, beti bezela, han men zabillen eliza inguruan gure bikayo jaun hori, ta hemen dator "don Jose!" ta "Zer dek?", ta "Ez do eskubideik beorrek nei in ditena iteko", ta "Ze ba?", "Ze ba esaten dit? Nik bat esan niyon kentzeko", "Ta zenbat kendu dizkiyat, ba?", "Hirurak!".. Daneako falta...

38. Herritar baten kezkarri buruzko anekdota

- **Erref:** ZAR-128/014
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:19:51. **Bukatu:** 00:22:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gizon bat hil zenean, hura janzten hasi, eta arropa txikiegi zeukan. Hori konpontzeko moduarekin lasai ez, eta apaizarengana konfesatzera joan zen haren alaba. Apaizak nola lasaitu zuen kontatzen du.

Transkripzioa

Beste bat: zeak, aita-alabak bizi zian, ta aita hori oso sonatua zan kontratista eo hola, herriyan haundizki zamarra. Ta harrei're heriotza aillatu, eta hala, hil danian, hasi dia erropak jazten, trajia jazten, ta pixka bat gizona haundiya berez, eta ez dakit, trajia're aspalditxo indakua igual izango zan eo, kuestiyua da haunditu in zitzakon ta ezin lotu. Jesus, Jesus, atarramentua noski. Baiña baten bat izaten da, ta "hau belaxen moldatuko

dezue hola". Atzetik iriki diyoe txaketa, rast, eta aurrian lotu diyoe botoyak, ta jarri diyoe kajan dotore, ta hala bialdu due mundu hontatik. Eta alaba hua're kezakain, ba. Ta hortako misiyuak eo zian, ta gure zea hoi, alaba, zea hori, andre hori, jun da ta han bakizu, "...Bai, hamen bagabiltza gabiltzan mouan, zea, hara ta honea geoko gauzik pentsatu gabe, baiña, ba, han azaltzen geanian Josepetan, han izango dia alkarren aurrian, han, lotsak eta gaiñuntzekuak". Hala, akordatu da bere aita nola bialdu zuen, ta Josepetan azaldu ber dala hamendik junda bezela... Jarri zayo buruan, eta ez dula loik ingo gure zea horrek, ez dula loik ingo, ez dula loik ingo, ta jun da konfesatzea. Hala, esan diyoe: "Oso kezkatuta bizi naiz", "Zer dezu, ba?", ta "Ez det loik iten. Jatiai're iya laga diyot, ta ez dakit ze atarramentu", "Ta zer dezu, ba?", eta "Hor nabil, misiyota junda, ta han non esaten duen hamendik junda bezela azaldu ber degula Josepetako zelaian, eta gure aitakin dakat kezka", eta "Zer daka, ba?" eta "Hara, hau ta hau pasa zitzaigun: trajia jazten hasi giñan, ta txaketa lotu ezin. Ta atzetik iriki, ta aurrian lotuta bialdu deu; baiña oain, han azaltzen dianian hemendik junda bezela, lotzagarrri azaldu ber dula. Ta hoixe daukat kezka", ta "Aaaa! Zuen aita... ez kejavu. Hartu lasai. Zeatikan hamen'e ez zan atzea eoten zan haitakua, ta han izango dia pendizak eta pondokuak, ta bea jarriko da baztarran kontra, ta iñok ez dio igarriko". Orduntxe lasaitu omen zan.

39. 'Txirrita' eta apaizari buruzko anekdota

- **Erref:** ZAR-128/016
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:24:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Apaiz berriak Txirrita bertsolariarekin izandako anekdota kontatzen du.</p>

Transkripzioa

Bueno, Txirrita sonatua zan bezela, sartu ta eleiza ataian han zeon. Ta hortako Hernanin lehengo bikayo zaharra hil, ta berriya etorrita zeon. Ta hala, hamaiketako mezeta jendia inguratu zitzayon zimitayuan, ta bikayo jaun horrek ezautu in nahi, ta sankristua ta biyak zabiltzan atayan, ta galdetu du "Harako hori zein da?", ta "Hori? Zea da, notayua; ta hua zea da, halako kabaillero; ta beste hua halako...", "Ta han baztarran brusakin ixeita daon hua zein deu, ba?", ta "A! Hua? Etorri ez, ta ez litzake asko galduko. Sekula ez du perro txiki bat botatzen. Bandejakin nijuan bezela, o kajakin nijuan bezela, burua makurtuta jartzen da lotan, ta pasa arte ez du altzatzen buruikan", ta "Ba! Holakuai, alboa aillatzian, burua jasten duen hoyei kajakin da! ematen zayo... dar! dar! hola zeakuan. Hoyek sagardotik'e asko ber izaten diye, ta antza badik Txirritana, baiña badakik". Hala, lehenbiziko mezetan, lehenbiziko zea hua, ba; eta badijua, ta buru bajatu zayo, jarri diyoe, eta hala, halako [...] eman diyoe kajakin dar! sayetsian, ta: "Zer dek!" eta "Earra eman diak! Earra eman...", ta "San Agustiniñen meza argiyantzako", "Nola esan dek? San Agustinen argiyantzako? Ta zein dek, ba, santu hori?", "Han aurrian, bi bastoiekin,

zea, buruz aurrea daon hua”, ta “Ba, esan diyok garaiz erten, eta illundu baiño leno erretiratzeko, ta ez dula argi berrik”.

40. Igeldoko tximuaren anekdota

- **Erref:** ZAR-128/017
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:24:24. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Igeldoko zoologikoko tximuari buruzko anekdota barregarria kontatzen du.

Transkripzioa

Beste bat, hau're istori polita. Igeldon, bakizu nola daon, zea, zoologiko zea hori? Parke hori? Ta hala etorri dia ingles batzuk, matrimoniya ta... Ta hala, ikusi due tximo oso elegantia omen zan, oso elegantia. Beira aspertu ezin, ta: "Hau zein da gauza! Majiña bat lekutan ibili gea, baiña horren ederrikan ikusi deunik'e...". Ta hala, eman diyo tentaziya etxeoandriai, ta poltza iriki du, ta karamelua bota diyo, dak! Ta gure tximu horrek hartu diyo karamelua, dak! eskuakin, ta papela kendu, ta atzian pasa ta tragatu. "Jesus! Hauxe jestu itxusiya. Hau dan eder... osea, honek dun edertasuna, ta horrekin dana galtzen du, dana galtzen du". Hala, berriz bota diyo, ta berdin: papela kendu, atzian pasa, ta tragatu. "Jesus, bere edertasun guztiya galtzen du". Haik danak kunplituta, hala badijuaz aurreo [...], ta han guardari han zabillena galdetu diyoe: "Aizu, esto, zu hamengo guarda al zea?", ta "Bai", ta "Oso tximu elegantia ederra dakazue. Elegantia horixe!", "Bai, majiña batek esaten du, ba. Ikeragarri gustatzen zayo jendiai", "Baiña ez al zea fijatu? Oso jestu txarra iten du", "Ta ze ba?". Ta "Toz, toz". Ekarri du, ta bota diyo karamelua, hartu du, peatu, atzian pasa ta danga! Ta: "Aaaa! Bai! Oaindik oaiño jarri zayo hori; leno ez zun. Beok bezelaxe, estranjeru batzuk eo holaxe etorri, ta intxaur haundi bat bota ziyoen; ta tragatu zun, ta ez dakit bizirik nola atea dan, hilko zala uste nun. Ta oain... Oso gaizki ibili gendun. Ta oain iten du lehenbizi neurriya hartu, ta geo sartzen du".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com